



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko uztailaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko uztailaren 5ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean François.

Deialdiaren eguna : 2023ko ekainaren 30a

Afitxatze eguna : 2023ko ekainaren 30a

5. ERABAKIA: "FUNTS BERRITZAILEAK" PROIEKTUARI BURUZKO EMENDAKIN BATEN ONARTZEA

(9.4 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio "Funts Berritzaileak" proiektuari buruzko emendakin baten onartzea.

Ikusirik, « Foncier innovant » deitu proiektua, deklaratu ez diren eraikuntza eta antolamenduak detektatzeko prozesua automatizatzeko xedea duena,

Ikusirik, planaren eguneratzeko esperimazioaren emaitza eskasak,

Ikusirik, bilakaera horrek gure lurraldeen aldeko zerbitzu publikoko Katastroko Geometroen eguneroko eginkizunean erakusten dituen mehatxuak,

Ikusirik, funtsen zergen eta hirigintza zergen segipena egiteko duen fidagarritasun eskasarengatik ondorio larriak,

Ikusirik, Katastroko tresna digitalen erabilera eta kudeaketa okerrak eragin ditzakeen ondorioen okertzea,

Frantziako Zerga Zuzendaritzari honakoa eskatzen diogu:

- Katastroko Geometroen eginkizuna mantendu dezala, hauek terrenean duten presentziagatik planaren eguneratzean eta tokiko erakundeei aholku emateko duten ekarpen historikoagatik.

- Funtzen Zerbitzuek luzaroan behar bezala funtzionatzeko behar diren giza baliabideak eman ditzala.
- Lehenbailehen Funtzen Zerbitzuei behar dituzten baliabideak eman diezazkiela.
- « Foncier innovant » tresna osagarria baizik ez izatea, eta « dena digitala » joera alde batera utz dezala.
- Urteroko Zerga Zuzenen Herriko Batzordeetan Funtzen Zerbitzuen ezinbesteko presentzia fisikoa berma dezala.

Ohartzen gara gaur egungo ekonomia eta gizarte testuinguruan Funtz Berritzaileak proiektua kaltegarria izanen dela eta sindikatuek zentzu horretan egin aldarrikapenei gure sostengua adierazten diegu.

Funtzen Zerbitzuak eta bereziki Katastroko Geometroen zerbitzu publikoko eginkizunak ezinbestekoak dira erabiltzaileentzat, biztanleriarentzat, hautetsientzat eta lurraldearen garapenarentzat.

Honako erabakiarekin, Herri Biltzarrak bertako eta eskumen osoko Finantza Publikoen sarearekiko atxikimendua berresten du.

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero:

AGINDU DIO, Auzapezari Pirinio Atlantikoetako Prefetarekiko behar diren izapideen egitea.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 13
Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko uztailaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/07/13an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/07/13an.